

Gure enpresaren ideia berria aurrera eramateko, hainbat jarduera desberdin egin beharko ditugu.

Hasteko, zakarrontziak edukiko duen **teknologian pentsatu** behar dugu, argi dago ez dela erreza izango zakarrontzi hain moderno bat sortzea baina begiratuta ditugu hainbat modu egiteko eta oso produktu ona izango dela badakigu.



Teknologia nolakoa izango den, eta produktuan nola funtzionatuko duen behin jakinda, guretzat ezibestekoa da **diseinu eta logotipo polita eta erakargarria izatea**. Diseinuaren aldetik, zakarrontzi klasiko baten itxura izatea nahi dugu eta kolorea berdin dio zeren eta erabiltzen duen pertsonak ez du pentsatu izan beharko non bota zakarrontzia bakarrik sailkatzen duelako zaborra.

Gure ustez, diseinua baino garrantzitsuagoa da enpresak izango duen logotipoa zeren eta honek oso baliabide ona izan daiteke bezeroak erakartzeko.

Enpresa barruan ez gara partaide asko, eta gainera baditugu sektore batzuk bete barik nola adibidez, ingeniaria postua, horregatik **langile berriak bilatu** behar ditugu eta hau egiteko, Bizkaiko ingenieritza fakultatera hurbilduko gara azken urteko ikasleen bila gure lan postua eskainiz.

Gure enpresa berria denez, **merkatua ezagutzera eraman behar dugu**, horregatik, ingurumenarekin kontzientziatuta dauden elkarteekin hitz egingo dugu gure produktua ezagutarazteko eta horrela apurka-apurka izan daiteke produktua gora egitea eta ezagunagoa denean, Bilboko Udalarekin hitz egingo dugu ea gure produktua nahi duten eta horrela gure enpresa nazionalki zabalduko dugu.



Produktua gehiago zabaltzeko, **web orrialde bat egingo dugu**. Web orrialde honek uste dugu oso bide ona izango dela zakarrontzia eta bere teknologia modernoa azaltzeko eta batez ere han bere prezioa jarriko dugu norbaitek interneten bidez nahiago badu erosi, handik erosteko.

Gure produktua oraindik ez dago ofizialki asmatuta, **horregatik produktua patentatzera joan izan beharko dugu** zeren eta

ez badugu egiten oso probablea izan daiteke beste batek gure ideia hartzea eta huraz aprobetxatu bere negozio propioa egiteko.

Amaitzeko, egin izan beharko dugun azken jarduera, berriak garenez enpresak sortzen, ez dakigu zenbatekoa izan behar den preziorik egokiena horregatik **ekonomilari batengana joan** beharra dugu berak guru honi buruz aholkatzeko.